

99E/2024 Ebazpena, azaroaren 28koa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, “Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeentzako laguntzak 2024” deialdiaren ordainketa onesten duena.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-1407-2024-000001**

UNIDADE KUDEATZAILEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tfnoa.: 848 423224
Helbidea: Paulino Caballero 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeentzako laguntzak.
Aplikazio arauak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea
Titularra: ZINTZUR IRUNBERRIKO EUSKARA TALDEA ELKARTEA
IFZ/IFK: G71457089

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariak apirilaren 17an emandako 40E/2024 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia eta haren oinarriak.

Ondoren, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak uztailaren 17an emandako 57E/2024 ebazpenaren bidez dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Bestalde, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emandako irailaren 5eko 71E/2024 ebazpenaren bidez lehen ordainketa onetsi zen.

Bigarren epeko laguntzak ordaintzeko egiaztagiriak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta horiek aztertu ondoren, laguntza horien likidazioa eta egiteke dauden ordainketak egin behar dira.

Euskararen Sustapenaren eta Planifikazioaren Zerbitzuko zuzendariak txosten bat aurkeztu du laguntzen bigarren zatia ordaindu eta erakunde eskatzaileei laguntzak likidatzeko proposatuz.

Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2024 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradunari dagozkion eskatutako laguntzak ordaintzea, taula honetan jasotzen den bezala:



NIF	NOMBRE	PARTIDA PRESUPUESTARIA	EJERCICIO	IMPORTE
G71457089	ZINZTUR IRUNBERRIKO EUSKARA TALDEA	B30002-B3200-4819-334100: (E) Ayudas a entidades sociales sin ánimo de lucro para fomento del euskera	2024	4.966,53

2. Taula honetan adierazten diren kopuruak askatzea:

NIF	NOMBRE	PARTIDA PRESUPUESTARIA	EJERCICIO	IMPORTE
G71457089	ZINZTUR IRUNBERRIKO EUSKARA TALDEA	B30002-B3200-4819-334100: (E) Ayudas a entidades sociales sin ánimo de lucro para fomento del euskera	2024	2.513,24

3. Ebazpen hau jakinaraztea eskatzaileari.

4. Ebazpen hau igortzea ondorengoei: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu hartzailetza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailerara, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideako Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administratiboaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

5. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga |

